

LIBREPLUME-K BOUQUINVILLE TTUPI kari antolatutako ANIMAZIOAK

Ostiral arratsaldean, 1. urteko taldea Eider Eibar ikustera joan gira mediateka ondoan.

Gela batetan jarri gira.



Eider Eibarrek bere portreta gure aintzinean marraztu du.



Gero bere etxean eginiko liburuendako marrazkiak erakutsi dizkigu.



Izan ere, norbaitek ixtorio bat idatzi eta, Ederrek irakurtzen du. Bere buruan nolako marrazkiak eginen dituen pentsatzen du. Ideia ainitz izaten ditu.

Orduan marrazkiak etxean dituen ditu, bere bulegoan.

Gero inprimategira eramaten ditu. Han argazkiz hartzen dituzte, albuman edo liburuan sartzeko testuarekin batera.


KOKOak ere erakutsi dizkigu :



Irudimenezko izaki txikiak dira, marrazkiak maite dituzte, eta nola egiten diren jakin nahi dute.

Ondotik, guk ere marrazki bat asmatu dugu : etxe irudimentsua !

Eiderrek marrazten zuen, eta guk ideiak ematen genizkion. Horrela elkarrekin PULATOTXO etxea eraiki dugu.



Bukatzeko, guk ditugu KOKOAK marraztu !!!



Eiderrek soinu bat egiten zuelarik, marrazkia ezkerreko lagunari pasatzen genion. Margoa, eskuinekoari. Eta hau, 4 aldiz egin dugu. Erran nahi baitu marrazki bakoitza, 4 lagunen artean egin dugula !

Koko bakoitzari izen bat eman diogu.

Eiderrek artistak girela erran digu, eta gure kokoak hain irudimentsuak izanez, beharbada bat ala bestea liburu baten ilustrazioetan sartuko duela !!!

Eiderrekin, biziki untsa zen !!!